

Goi

Goierritarra aldizkaria

397 zenbakia 2011ko martxoak II



**JUANITO
TOLOSA
ITSASUNTZIKO
SUKALDARIA**




ARRANTZA DENBORALDIA
BERANDUAGO IREKIKO DA

APIRILAK 3

ALTAMIRA
JATETXEA

Altamiran
sukaldaritza
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia.
T 685 794 755 / altamira@geri.net



elakone

SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara

Igandeetan itxita

Eguerdietan ostegunetik
larunbatera bakarrik

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, astelehena eta
asteartea ezik. Larunbat eta igandeetan
eguerdiz ere irekita
(asteen zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57

ZERAIN

aulia



TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko
meua



☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

Orain kupela gehiago

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Egunero 19:00etatik aurrera
Ostiraletan eta asteburuetan
eguerdietan zabalik

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA

Egunero
zabalik



Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzeraz!

☎ 943 18 01 19

ATAUN



ETXE-ZVRI

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA



Igor Bueno

Kaixo Etor, Herrialde Arabiarretatik dator notizia... Nork espero zian halakorik? Ezagutzen genizkian kostalde atseginak, piramide ikusgarriak eta petroleo putzu

amaigabeak. Baina horren guztiaren atzean agintarien korrupzio ikaragarria eta herritarren askatasun falta nabarmena ezkututzen zituan. Eta bat-batean! Mundu osoaren harridurarako, iraultza egiten asmatu ditek! Miresgarria. Twitter, Facebook, Youtube eta beste hainbat blog baliatuz hitzak ohiu bihurtu ditiztek. Euren unea iritsi denean, bildu eta tiranoak gobernutik bota ditiztek. Tunezen Ben Ali eta bere lagunak, hara non, Michelle Alliot-Marie horien artean! Egipton Mubarak. Libian Gaddafi laster botako ditek, larri zebiltzak ordea, hortxe-hortxe Yemenen eta Bahreinen ere. Eta hurrena nor izango den? Etor, ez hadi arduratu, horren berri Mikel Aiestaran kazetari odolkitzale beasainda-

Eta bat batean!

Mundu osoaren harridurarako,

iraultza egiten asmatu ditek! Miresgarria.

rrak emango ziguk. Orain Libian zegok, baina albistea non, Mikel han! Bere twitter bidez, bere youtubeko kanalaren bidez eta bere blogaren bidez guztiaren berri emango ziguk.

Arrazoik dek Etor, urrutira joan beharrik gabe gurean ere bazerek sasi-agintari ustel ugari. Hemen ordea, iraultza tabernatan gertatu duk, leku itxietan alegia, erre ezin delako, eta ostalari zenbait negarrez. To be, or not to be. Erretzearena edukazio kontua duk, eta zenbaitek, hortik ezer gutxi! Sasi-agintari ustel horiek bezala!

Hi Etor, kirol konturik aipatu gabe geratuko gaituk oraingoan. Futbola aspertzen hasia zaigula izango dek, edo azkenandian interesgarrikerik ezer gutxi dagoela izango duk agian.



Etor Mendia

Kenduko ote dizkitek benetan? Bertako herritarrek aukeratuko al ditek beren gobernua edo Estatu Batuek erabakiko dik zein komeni zaien? Tira, urrutira gabe, diktadore batek inposatutako 'transizio modelikoa' jasaten diagu, hura joan huan baina hark markatutako ibilbidea daramagu, hark izendatutako estatu buru eta guzti. Gadafirekin ere bazeuzkak argazki batzuk, irrifartsu. Hori ez ote dek tiranoa? Gure unea ere gerturatzen ari ote dek? Bai motel, txantxuloetan bai 'liderrak' gure inguruko agintariak: aberastasuna lagun gutxien artean banatzen ditzen bitartean gutxi hoiek erabakitzen ditek zer den nahikoa besteontzat; urte gutxi batzutan poltrona bat berotuz bizi gutzirako soldata lotsagarriak dizkienak gure pentsioen onerako urte gehiagotan kotizatu behar diagula esaten zigutek; lan gehiago egin soldata bajuagoaren truke; lan merkatuaren malgutasunaz zer esanik ez. Badiagu arabiarrez zer ikasirik!

Garbi zeok interneten indarra, nola iritsi daitekeen jendearengana eta nola atera arazi duen jendea kaleetara. 'Diktadura arabiarretan' posible izan dek. European

Aberastasuna lagun gutxien artean banatzen

ditzen bitartean gutxi hoiek erabakitzen ditek

zer den nahikoa besteontzat.

'Zuzenbide Estatu' batean berriz politikari baten facebook-a itxi die. Aurrez zenbait komunikabideekin egin zien modura. 'Apurto.org'-rekin egin dien bezela; Wikileaks-ekin EEBB-etan egin dien bezela. Ez zaiek interesatzen jendeak beraiena ez den ikuspuntua ezagutzerik, geure kabuz pentsatzeari beldurra diote.

Kea bakarrik ote dek iraultzaren erruduna? Ditzozosko krisiak ez al dik zerikusirik? Halare heziketa beharrezkoa dek, baina baita beste kultura bat ere agintarien aldetik: debekuen bidetik bakarrik konpontzen al dituk gauzak?

Kirolean zer? Operacion Galgo? Eta Contadorrek jasotako babes gubernamental? Futbolari batek gizartearen errotutako aldarrikapen batekin bat egitea kirola eta politika kakaztea omen dituk gero!

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Joxantonio Ormazabal

Berasategi oroimenean

Datorren martxoaren 13an, eguerdiko ordu batean, Zegamako herritarrok Joxantonio Ormazabali eskaini behar diogun oroimen ekitaldiaren harira hainbat gogoeta egitera natorki-zue.

Joxantonio Ormazabal Zegamako Aierdi baserrian jaio zen, eta ordu ezkeror Joxantonio 'Aierdi' bezala ere ezaguna genuen gure artean.

Gure Joxantonio 'Aierdi' nolakoa zen? Pertsona fina zen, umila, goxoa, jatorra, irekia, beti alai, umoretsu eta irribarrez ibiltzen zen lagun ona, irribarrea zabaltzen zekien tipoa, bere barre algaratsu-berezi kontajosoarekin, bihotz zabala, beti laguntzeko prest, langilea, laguna...

Gure Joxantonio 'Aierdi' oso pertsona serioa ere bazen, hartutako konpromisoak betetzen zituen horietakoa. Lagun jatorra, lagunartean giroa eta elkarganako lotura sortzen duten horietakoa ere bazen gure Joxantonio 'Aierdi'.

Nik uste dut perfekzionista ere bazela, gaurko egunerokotasunean sarturik dauzkagun itxurakeria, hipokresia, indibidualismoa, injustizia, zapalketa... ez zituen onartzen, ez, eta saiatu zen horiek aldatzen.

Guztion zoriontasunaren bila ibiltzen zen horietakoa ere bazen gure Joxantonio 'Aierdi'. Edozeinekin egoten zekiena eta egoten zena, bai ume, gazte edota helduekin ere.

Eskuzabala zen, sentsibilitate handiko pertsona, beti edozeini laguntzeko prest zegoen, bai etxekoei nola kanpokoei, behar-rean zegoenari beti esku bat botatzen dioten horietakoa ere ba zen gure Joxantonio 'Aierdi'.

Bertsoren bat prestatu behar zela? Eskelarako hitz goxo batzuk behar zirela? Eskatu eta berehala izango zenuen eskatutako dena. Zahar etxeetan zeuden Zegamarrei ere makina bat bisita egiten zien, kontuak kontatu eta jasoaz, Sabino 'Ibaiondo' hartu "Sila rueda"n eta Tolosan zehar ibiltzen zen, edo Seguran Lasarte bertsolariari asteroko bueltatxo egiten zion... horietakoa ere ba zen gure Joxantonio 'Aierdi'.

Askotan elkar zirikatzen ibiltzen ginen, ni nolakoa naizen kontuan hartuta tarteka nire izaerarekin eta berearekin bat etorriko zirela uste zuen olerkiak ematen zizkidan. Sarritan poltsikotik atera papertxo bat edo koadernotxo hura, eta gauzaren bat interesatea zela iruditzen bazitzaion bertan jasotzen zuen, edo esku artean zerabilen lanen bat irakurtzen zuen, eta zer iruditzen zitzaidan galdetzen zidan... eta ados ez banangoen filosofatzen ibiltzen ginen zeru eta infernutik bueltan.

Niretzat, beste askorentzat bezalaxe, denbora, pazientzia eta dedikazio handiarekin, izugarrizko lanak egin zituen, testu mordo bat zuzentzen esaterako. Eta dena ni zoriontsu egitearren, trukean ezer eskatu gabe. Horrelakoa ere ba zen gure Joxantonio 'Aierdi'.

Zegama asko maitatzen zuen, bere herritarrak, bazterrak, beti zegoen Zegamara etortzeko prest eta etorri ere askotan etortzen zen, bere bihotzeko herrira.

Horiez guztiez eta askoz gauza gehiagoz gain, nik zer edo

zer bereiztu beharko banu gure Joxantonio 'Aierdi'ri buruz, zera izango litzateke: sentimendu handiko pertsona zela, oso sentimental zela esango nuke, dena bihotzarekin sentitzen zuena, buruarena baino gehiago bihotzaren esanetara ibiltzen zen horietakoa zen, bihotza zuen begi... ez zekien ezeri ezetz esaten, edozeini, dena emateko prest egoten zen beti, beti... bes-teen zoriontasuna bilatzearen.

Horrelakoa ere ba zen gure Joxantonio 'Aierdi', horrela gogoratzen dugu. Asko dira burura etortzen zaizkidan pasadizo eta oroitzapenak, eta ahaztu ezinak harekin gogoratzean datozkidan gogorapenak.

Ahaztezina haiz, Joxan. Bahuen magnetismo berezi bat, jendeari ematean oinarritua. Aparteko gizatasuna, laguntasuna huen. Herriko nork ez zian hirekin traturik izan? Nori ez hion kasu egin, nori ez irribarre bat luzatu? Nori ez eskaini hire eskuak, hire bihotz alai eta zabala?

Oso arduratsua eta konprometitua hintzen: etxekoe-kin, senideekin, lagunekin, lantokikoekin, herritarrekin, herriarekin ez ezik Euskal Herriarekin ere... denok in arduratsua. Lanpetuta ibili

**Dena bihotzarekin sentitzen zuen, buruarena
baino gehiago bihotzaren esanetara ibiltzen zen
horietakoa zen, bihotza zuen begi.**

arren, beti izaten huen denbora halako edo bestelako faborea egiteko, beti, bai, beti besteei dena eskaintzeko prest egoten hintzen, besteak zoriontsu ikustearren. Edozer zela, eskatu ezkeror beti erantzun berdina Joxanen ahotik ateratzen zena: "Hori eginda zegok, hori nire kontu" eta ordu batzuk edo egun batzuk geroago han izango zenuen Joxan deika: "Angel, eskatu hidan bertsoa prestatu diat", edo "Noiz ikusiko gaituk, eskatu hidan liburua lortu diat eta gainera, deskuentoarekin...". Beti agindutako betetzen duten horietakoa genuen gure Joxantonio 'Aierdi'.

Erdaraz bada esaera bat dioena: "nadie es imprescindible", eta agian horrela izango da, gure Joxantonio 'Aierdi' ere ez da izango "imprescindiblea", baina asko gara uste dugunak beharrezkoa bai, mundu xelebre honetan, beharrezkoak diren pertsona horietakoa bazela.

Bukatzearen, berak niri emandako olerki horietako bat aipatu nahi dut bere oroitzapenean, azken hitza (izena) aldatuta:

Bizitzaren oihala josi eta josi
komediaren hariak
tragediaren hariarekin
nahasi eta nahasi.
Ni bezalako
komediante
tragiko bati:
Joxantonio 'Aierdi'ri.

Orain fisikoki falta haiz gure artetik, Joxantonio, baina hirekin bizitakoak gurekin jarraituko dik, hi bezalaxe, ahazten ez dena ez baitzegok hila, ez, betirako gurekin jarraituko duk. Gure Joxantonio 'Aierdi', beti gogoan izango haugu!

Joxantonio 'Aierdi': Mila esker emandako guztiagatik eta zoriontsu izan hadi hagoen lekuan hagoela ere, besterik gabe adiorik ez, gero arte Joxan.

Angel Irigoras Ormazabal

ARETO
 NAGUSIAN
*Etorri aurretik
 izena eman!*

902 110 436
www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE MARTXOAK 17 osteguna, 17:30

ORDIZIA MARTXOAK 26 larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

VITORIA-GASTEIZ MARTXOAK 12 larunbata, 10:30

EUROPA BILTZAR JAUREGIA



lore eta landareen udaberriko XI. azoka

EGITARAUA

MARTXOAREN 19AN, LARUNBATA:

Zuhaitz landaketa eta ibai inguruko
 ekologiarri buruzko ibilaldi gidatua
 16:00tan herriko plazan elkartuko gara.

MARTXOAREN 20AN, IGANDEAN:

Goizeko 10etan, AZOKAREN IREKIERA
 -Kriseilu txistulariak eta herriko trikitilariak
 -Lore eta landare erakusketa eta salmenta
 -Eskualdeko artisautza eta produktuak

10:30etatik 14:00tara, IKUSKIZUNA plaza inguruan
 "Txerto ezberdinak fruitarboletan"

Josu Osaren eskutik

Arratsaldeko 4:30etatik 7:00etara

Azokaren jarraipena

2011eko martxoaren 20an goiz eta arratsaldez
SEGURAN

Noiz '-ko' eta noiz '-tako'?

Maizpide euskaltegia

Izenburua irakurtzean...

- a) 'beldurtu' egin bazarete, lasai, gaur ez gara inor iraintzen hasiko-eta!
 - b) Mexikoko gastronomian pentsatu baduzue, sentitzen dugu! Cantina mariachi horietako batera joan beharko duzue ahoa 'goxatzera'!
- Tira, katxondeoa alde batera utzita, euskal hiztunen artean zalantza handia eragiten duen zerbaiten inguruan jardungo dugu gaur. Nola esan behar dugu: **lau bankako aulkia** ala **lau bankatoko aulkia**?

Bada, **nolako** galderari erantzuten diogunean **'-ko'** erabili behar dugu. Beraz, lehena da zuzena!

Neurria, adina, pisua, prezioa... adierazteko ere **'-ko'** erabiliko dugu:

BAI!

Zazpi **urteko** neskak
Hogei **metroko** oihala
Berrehun **kiloko** harria
Bi **litroko** zahatoa
Bost **kilometroko** bidea
Hiru **puntu**ko saskiratzea

EZ!

Zazpi **urtetako** neskak
Hogei **metrotako** oihala
Berrehun **kilotako** harria
Bi **litrotako** zahatoa
Bost **kilometrotako** bidea
Hiru **puntutako** saskiratzea

Nongo galderari erantzutean, ordea, **'-ta'** atzizkia sartu egin behar da!

- ✓ **Ehun herritako** ordezkariak izango dira bileran. (egokia)
- ✗ **Ehun berriko** ordezkariak izango dira bileran. (desegokia)
- ✓ **Hiru menditako** tontorretan jarriko dituzte gurutzeak. (egokia)
- ✗ **Hiru mendiko** tontorretan jarriko dituzte gurutzeak. (desegokia)

Erreparatu, bestalde, ondorengo 'proba'ri:
Pilota-partida...

- a) 22 tantutara izango da.
- b) 22 tantotara izango da.
- c) 22 tantura izango da.
- d) 22 tantora izango da.

Zein ote da zuzena? Bada, azkena! Orain dela hogeitau urte ETB1eko pilota-partidaren bat grabatu bazenuten '22 tantutara'-jartzen zuela konturatuko zineten. Kontua da, goian aipaturakoa az gain, Euskaltzaindiak tanto hitza hobetsi zuela orain dela urte batzuk.

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Mieltxo Saralegi 360 kiloko harria jaso omen zuen behin Leitzako bere etxean.
2. 115 gramoko pilota izan zen gakoa Sebastien Gonzalezen eta Juanxo Kokaren arteko norgehiagokan.
3. Gipuzkoako hamazazpi eskolako haurrak joan ziren belodromora dokumental hori ikustera.
4. Joxepari ez zaizkio batere gustatzen lau hostoko hirustak!

OHARRA: denak zuzenak, hirugarrena izan ezik (*hamazazpi eskolako* behar du).

Gulliver ote da bost metroko giltza honen jabea?



ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,
Erreformak...

www.zubara.es
943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

PSIKOLOGI KLINIKOA

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**



kutxa



Juanito
Tolosa,
ordiziarraren
bizipenak:

**“Soldadutzatik etorri
ginenean pasa ginen
ardora, aurretik
sagardotegian
ibiltzen ginen”**



Juanito Tolosa ordiziarra da. Goierriko Hitzak Ordizian, kaletxeetan, 11 sagardotegi zeudeneko kontuak ekarri zituen gogora Eugenio Aranarekin. Segura Irratiko Bixi-Bixi saioan Iñaki Gurrutxaga Hitzako kazetariarekin hortaz hizketan ari zirela, Juanito Tolosak irratira deitu eta berak ere makina kontu dakizkiela eta gustura kontatuko zituela esan zuen. Grabadora eta argazki makina hartu, eta Ordizian, egunero karta jokoan ibiltzen den txokoan elkartu gara. Hitz jario eta memoria onekoa da Juanito. Sagardoaren aitzakian, ordubeteko berriketa saioan, makina bat kontu eta ibili kontatu digu.

“Gaur egun, ardo zalea gehiago naiz, sagardo zalea baino. Baina gaztetan, gure ohitura, sagardotegira joatea zen”, horixe esan digu lehendabizikoz Juanito Tolosak.

Sagardoaren bueltan, garai politikak gogorarazi dizkigu ordiziarrak. 1950. urte ingurura salto egin digu, Ordizian, sagardotegiek izan zuten garrantziaz jabetzeko. Santu Guztien egunaren inguruan egiten zuten lehenengo bisita sagardotegira. “Sagardotegian, lehenengo,

pitarra izaten zen. Sagardoa egin eta hilabetera egiten da pitarra. Gozo-gozoa egoten da. Pitarra probatzera joaten ginen lehenengo. Santu Guztiak inguruan izango zen”.

Aste Santuan

Dena den, sagardotegiak, puri-purian, Aste Santuan izaten ziren. “Orain asko aurreratu dira, baina garai hartan, Aste Santuan egoten zen sagardo puri-purian. Sagardoa egiten zutenak, oso

“Orain asko aurreratu da, baina garai hartan, Aste Santuan egoten zen sagardoa puri purian. Sagardoa heldutakoan irekitzen zituzten kupelak”.

kontuan edukitzen zuten, eta helduta irekitzen zituzten kupelak". Aste Santua iristen zenean, ospakizun berezia izaten zen. Izan ere, "sagardotegiek, bakailaoa jartzen zuten. Oso bakailaoa ona, zoragarria!". Gainerakoan, sagardotegietan ez zuten janaririk prestatzen, eta norberak bere kazuelatxoia eramane zezakeen.

Sagardo litro asko egiten zen Ordizian. Esate baterako, Hidalgo sagardotegian, 1900. urtean, lau mila eta bi mila litroko seina upel zituzten. La Granjan, 1928tik 1975era, 80.000 litro egiten zituzten urtero. Eta Upabin, 30.000 litro egitera iritsi ziren. Juanito Tolosak esan digunez, "ez daukat batere garbi, non eta nola saltzen zuten sagardoa. Hainbeste sagardo ez genuen edaten, ez txiritik, eta ezta botilatik ere".

Lanetik bueltan

Beste ordiziar askok bezala, CAFen lana egiten zuen Tolosak. "Ordiziatik bakarrik, 800dik gora joango ginen CAFera". Goizeko 8etatik 12etara eta 14:00etatik 18:00etara egiten zuten lana, astelehenetik larunbatera. Lanera sartu aurretik, hiru aldiz jotzen zuten adarra, "7,30etan, 7,45etan eta 8etan. Eguerdian ere berdin. Ateratzeko bakarrarekin nahikoa izaten zen", dio ordiziarrek. "Artzaia ardiak eramaten dituen bezala joaten ginen, manifestazioan bezala. Irten, 6etan ateratzen ginen. Larunbatetan ere lana egiten

Laugarren 25ekoan sartuta

Zenbat urte dituen galdetuta, honako erantzun hau eman digu Juanito Tolosa ordiziarrek: "hiru 25eko eginda eta laugarren, 25ekoan noa. Ea lau 25 egiten ditudan. Borondatea jarriko dugu!", dio. "Gauza bati bakarrik diot beldur ikaragarria: enbarazo egiteari. Eutanasiaren alde nago ni", gaineratu du.

Hizketan jarraituta, esan digu gerra urtean jaio zela. Jaio, Altzagan egin zen, amaren jaiotetxean. "Orduan, emaginik ez zegoen eta ni aurreneko umea nintzen, ama, jaiotetxera joan zen, Altzagara, amarengana. Gerrateko urtean jaioa naiz. Bost egun egin nituen baserrian. Beti Ordizian bizi izan naiz", azpimarratu du.

genuen. Igandea bakarrik izaten genuen jai. Ostegun eta Ostiral Santuak jai egin, eta larunbatean lanera joanda gaude. Lana ikaragarri zegoen, xoxik, batere ez", zehaztu du.

Lanetik ateratakoan, lagun giroan, sagardotegietako erronda hasten zuten. Ondo gogoan du sagardotegi bakoitza non zegoen: "Granja San Isidro (Goierrri eskola dagoenean), Upabi (Laskibarren erorian dagoen

baserria), Simona (Lazkaora joateko zubiaren pare-parean), Arana (plazuelan), Hidalgo (Kixka taberna dagoen tokian). Arantxa bodegak, Granja San Isidroko sagardoa saltzen zuen".

Sagardoa eta jokoa

Sagardoaren aitzakian, laguntaldeak bildu eta giro polita sortzen omen zen. "Gure koadrilak, soldadutzara joan aurretik egiten zuena kontatuko dizut: sagardotegian, bi talde egiten genituen eta

tokan eta igelean jokatzeko genuen, eronda zeinek pagatu. Sagardotegi ia denetan zegoen jolaserako lekua. Tokak eta igelak zeudenez, rondak askoz ere geldiagoak ziren".

Beste oroitzapen bat ere ekarri du Tolosak. "Kupelak zuloak zeuzkan, zulo haiek, argizariekin ixten zituzten. Sagardoa espitzen hartu behar genuen garaian, jertseak eta galtzerdiak egiteko erabiltzen ziren orratz luzeak hartu eta ireki egiten zuten argizaria. Gero berriz ere, zuloak ixten zituzten argizariarekin".

Garai zaharrak gogoratu-ta, ondoko hausnarketa egiten du ordiziarrek. "Askotan pentsatzen dut eta esaten dut: ez diagu ba ezer asko behar ondo ibiltzeko. Eta gaur egun mundua dagoen bezala, denak erneatuta dabilta, denak korrika... Gaizki ikusten dut. Nahiz eta dena eduki, jendea erabat petralduta dago. Niri iritzia da".

Garaiak aldatu egiten dira eta Tolosaren txikiteo bizi-tzan, soldadutza izan zen muga. "Soldadutza egin ondoren, akabo gure sagardotegiak. Orduan hasi ginen txikiteoan, ardotan tabernaz taberna. Tabernak puripurian jarri ziren. Ardoa eta txikiteoa hasi zen. Sagardotegia atzera bota zuen ardoak. Tabernak zabaldu zituzten, herrian taberna asko zeuden eta koadrilek herriari buelta guztia ematen zioten", gogoratu du ordiziarrek.

"Sagardotegian, bi talde egiten genituen eta tokan eta igelean jokatzeko genuen, erronda zeinek pagatu."


ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
620 32 62 92
943 18 03 72
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak



MUJICA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Itsasuntziko sukaldaria

Gerra garaian jaiotakoen bizi-penak eta istorioak dira Juanito Tolosak kontatu dizki-gunak. Sagardoaz gain, ordea, beste makina bat kontu ere kontatu digu. Lan kontuak batez ere. Interesgarriak iruditu zaizkigu bere bizipenak jasotzea, bere bizimodua nola aurrera atera zuenaren testigantza biltzea.

Morro

11 urterekin joan zen morroi Idiazabala. “Bihurri samarra nintzen. Batzuk jateko bazeukaten eta beste batzuek ez eta, eta eman egiten zidaten edo eman egiten nien. Ugatzaita nuen, nire aita gerran hil zen eta. Oso gizon ona zen, oso langilea. Aitari esaten zioten bihurria nintzela eta burua berotu zioten. Ama ez zen hitzik esatera ausartzen eta morroi bidali ninduten”.

14 urterekin, Ordiziako Irastorza zerrategira etorri zen. 16 urterekin, CAFen hasi zen. “Amak, bi oilasko erosi zituen, oilaskorik onenak. Jefe personalari, Jose Pascuali, emateko, lantoki on bat emateagatik. Eman nizekion oilaskoak, pena handiz, eta ni, forjara bidali ninduen. Soldadutzara joan nintzen arte han egon nintzen. Soldadutzatik etorri nintzenean, amari esan nion lehenengo hitza haxe izan zen: ez dakit lapurretara joango naizen edo zer egingo dudan, baina ni forjara ez noa lanera”, gogoratu du Tolosak.

Soldadutzatik etorri eta Patricio Etxeberriarenera joan zen lanera. “Zortzi urte egin nituen. Neroni gastu handikoa izan naiz, oso kalea zalea

izan naiz beti eta. Ezkondu ere egin nintzen eta irabazten nuen diruarekin ez zen iristen. Andreari esan nion eta bakailaotara joan nintzen itsasora”.

Bakailao itsasontziko sukaldaria

Pentsatu eta egin. “Sukaldari laguntzaile joan nintzen. Arrainak ateratzeko sarea biltzeko maniobra batean, sukaldaria itsasora erori eta hil egin zen. Ternuako portu inguruan genbiltzan. Canadako polizia hiru egunetan aritu zen bere bila, baina ez zuten aurkitu. Zirrara handia eragin zidan ezbehar horrek. Ni jarri nintzen sukaldari”.

Sukaldariaren pasarte hura ondo gogoan du Tolosak. “Oso gogorra izan zen”. Sukaldariari egin zitzaion agurra gogoratu du: “Kapitainak otoitz bat egin zuen eta Espainiako banderara, bodegan zegoen arrainik handiena hartu eta uretara bota zuen. Arrain handiak ibiltzen ziren. Baskularik ez zegoen baina 100 kilotik gorako bakailaoak ikusi nituen”. Orduan ikasi zuen sukaldatzen Tolosak. “Orduan ikasi nuen eta harrezkerotik sukaldari bezala aritu naiz lanean. Pasaiaiko Lasa zen armadorea eta segitzeko animatzen ninduen. Baina nik burutik ez nuen kentzen sukaldariari gertatu zitzaiona. Etsi egin nuen. Dirua ondo irabazten genuen. Bi marea egin nituen eta gehiago ez nintzen joan”.

Merkataritzako itsasuntzian

Bakailaotako itsasuntzia utzi

“Bakailaotako itsasuntzia utzi nuen baina dirua ondo irabazten zenez, merkataritzako itsasuntzian sartzen saiatu nintzen. Bilboko portura joan eta sukaldaria nintzela esan nien”.

egin zuen, baina itsasoa ez. “Hura utzi nuen baina dirua irabazten zenez, merkataritzako itsasuntzian sartzen saiatu nintzen. Bilboko portura joan eta sukaldaria nintzela esan nien. Panamako bandera zuen merkataritzako itsasuntzi bat bazela esan zidaten, eta sukaldaria behar zutela. Hara joan nintzen. Diru gutxi-xeago irabazten genuen. baina Ron Bacardi txuria ekarri- z eskupeko politikak lortzen ziren. Dirua ondo irabazi nuen”.

Bitxikeria eta pasarte polit bat baino gehiago du Tolosak. Bat kontatu digu, Marokon, garabiarekin izan zuena. “Grua nola ibiltzen zen jakin gabe, gruarekin karga lanean hasi nintzen. Karga balantzaka hasi eta itsasontziaren kontra joan zen azke- nean. Zubia puskatu nuen. Gero, fakturatik deskontatu zidan”.

Bidaia-rien itsasuntzian

1973. urtean, beste urrats bat egin zuen Juanito Tolosak,

jendea garraiatzen zuen itsasuntziko sukaldari izendatu zutenean. “Onena orduan etorri zen. Barcelonako Ibarra konpainiak, nire informazioa bazuen, halako merkataritzako itsasuntzi batean sukaldari bat bazela. Deitu egin zidaten. Udako kanpainak egiteko ziren: Vancouverretik abiatu eta Vitoria British Columbiatik Alaskako glazietara. Bidaia-riekin. Izugarria zen. Kontratu ona sinatu nuen. Oso ondo irabazten nuen. Larunbatak eta igandean, ordu extrak bezala kontatzen ziren, Canadako baldintzetan ordaintzen ziren. Kanadiarrek irabazten zutenaren tamainan irabazten genuen. Hilean, 250.000 pezeta irabaziko genituen”.

3 uda pasatu zituen, 1973tik 1975era. “5 hilabeteko lana izaten zen: maiatzetik irailera. Glazietara joan zite- keen garai bakarra hori zen”.

Oso gustura aritu zen lan horretan. “Seriean lan egiten genuen: batzuk, labean, bes- teek plantxan, baporean...

Soldadutza, Erronkarin

Soldadutza Erronkari aldean egin zuen. “Kaminoak egitera Erronkarira!”, gogoratu du Tolosak. “Batallon de trabajado- resekoe, kaminoa hasi zuten. Gaiarreren mauseleotik kilo- metro bat aurrerago eraman zuten. Pista militarrek ziren eta guk, Uztarroz gaineraino egin genuen. Oholaren gaine- an lo egiten genuen, manta batekin tapatuta. Iaz joan nin- tzen paraje haiek ikustera eta guk utzita bezala dago! Pista artzainek erabiltzen dute eta autoarekin ibiltzeko moduan dago jarrita”, gaineratu du ordizarrak.

Beti lan berdina egiten genuen. Nik labean egiten nuen. Oso gustura egon nin- tzen”.

Itsasuntzietako lana utzi eta batean eta bestean ibili izan da Juanito Tolosa, suka- dari lanean. Jatetxe ezberdi- netan ibilia da eta gaur egun ere, familiakoei bazkaria pres- tatzeaz arduratzen da. Elkartean ere makina bat otordu prestatzen du. “Azkenerako gustua hartu nion”. Sukaldean erlaxatzen omen da oraindik ere.

Elkarriketaren hasierako gaiara itzuliz, urtean 3-4 aldiz joaten da sagardotegietara. “Ondo pasatzen dugu. Gero medikuekin pasatzen ditugu komeriak baino! Urteak ere hor doaz. Baina inor ere ez da hemen gelditu, eh?”, dio umo- retsu.

Abentura politik bizi izan ditu Juanito Tolosak, “gogo- rrak ere bai. Baina berriz jaioko banintz, egin ditudan guz- tiak egitea nahiko nuke”, aitortu du.

“1973tik 1975era, bidaia- ren itsasuntzi bateko sukaldari kontratatu ninduten.

Vancouverretik abiatu eta Vitoria British Columbiatik Alaskako glazietara joaten ginen. Bost hilabeteko bidaia izaten zen”.

Abentura politik bizi izan ditu

Juanito Tolosak,

“gogor- rak ere bai. Baina berriz jaioko banintz, egin ditudan guztiak egitea nahiko nuke”.




ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



Iñauti Hartz Klinika

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zaki. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

Asier Arrese, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendieta Natura Ingurune zuzendaria: “Arrantza denboraldia apirilaren 3an hasiko da”

Duela hiru urte amuarrain gutxi zegoela-eta arrantza mugatu egin zen. Orain, amuarraina ugaltu egin omen da. Zer aldatu da hiru urteotan Gipuzkoako erreketan?

Departamentua duela 17 urte amuarrain populazio-jarraipena egiten hasi zen, eta joera orokorra beherakoa dela garbia da. Hala ere azkeneko urtean egindako azterketan garbi ikusi dugu amuarrainen populazioetan igoera oso nabarmen bat egon dela, duela 10-15 urte genituen amuarrain kopuruetara bueltatu gara. Igoera hori ugalketaren funtzionamendu onari esker izan da. Hau da, gure ibaietan beste urteetan baino askoz ere alebin gehiago dago. Hurrengo urteetan ikusiko dugu zein eboluzio daukaten populazioek, ia igoera mantentzen den edo joerak berdin jarraitzen duen.

Neurri berezirik hartu al duzue? Zeintzuk izan dira?

Populazio jaitsiera horren aurrean, Departamentuak amuarrain populazioak babesteko zenbait neurri hartu zituen: harrapa daitzekkeen amuarrain kopurua 3ra jaitsi, debekualdia zabaldu ugalketa tokiak babesteko eta hil gabeko arrantza tarteak areagotu, amuarrain helduei laguntzeko.

Hurrengo denboraldian neurri horiek mantenduko dira, eta hurrengo urteetan aztertuko dira, eboluzioaren arabera.

Arrantza denboraldiaren irekiera atzeratu egin duzue.

Zergatik?

Bai, aurtengo arrantza-denboraldia apirilaren 3an hasiko da, ez martxoaren 19an, tradizionalki irekitzen zen bezala. Atzerapena gure inguru guztian izango da, Araban eta Bizkaian, gu bezala, apirilaren 3an irekiko da. Neurria, lehen aipatu ditugun neurriak bezala, arrantza murrizteko hartzen dira, amuarrain populazioen jaitsieraren aurrean.

Zein izango da aurtengo arrantza araudia? Egunak, neurriak, guneak...

Gipuzkoan, egunero arrantza daiteke, jaiegun ez diren asteartekak izan ezik.

Arrantzaleak, egunean, 3 amuarrain harrapa ditzake.


Arrantza debekatutako tarteak daude arto guztietan. Tarte horiek arrantza arautzen duen Foru Aginduan azaltzen dira. Aurtengo Agindua datorren astean argitaratuko dugu.



“Azkeneko urtean egindako azterketan garbi ikusi dugu amuarrainen populazioetan igoera oso nabarmen bat egon dela, duela 10 15 urte genituen amuarrain kopuruetara bueltatu gara”.

Apirilaren 3an irekiko da arrantza denboraldia

Martxoaren 19 inguruan, ireki ohi da arrantza denboraldia, baina aurtengoan, atzeratu egin dute irekiera. Apirilaren 3an irekiko da Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban. Arrantza babestu nahi da neurri honekin.



Goierriko erreken egoera

Goierriko erreken (Agauntza, Amundarain, Oria, Eztanda...) egoera zein da? Hobera egin al dute?

Zalantzarik gabe hobera egin dute, batez ere Oria eta Eztanda ibaietan ur-kalitatea hobetu da saneamendua egin den tarteetan. Hobekuntza hori nabariagoa izango da saneamendu guztia bukatzerakoan.

Agauntza hobeto dago Lareo urtegia egin zenetik, udan ur-emaria mantentzen da, eta lehen lehortzen ziren tarteek, gaur egun ura daukate urte osoan.

Amundarain ibai gehiena oso ondo dago, baina saneamendu bukatzea falta da, herriko hondakinak ibaira doaz, oraindik.

Berreskurapen horren seinalea da arrainek ibai guztiak kolonizatu dituztela. Gaur egun Orian bertan arrain pila bat ikus daiteke, batez ere barboak eta loinak, baina, ez arrainak baka-rrik, arrainen atzetik hegaztiak ere etorri dira, eta lertxunak adibidez gaur egun toki askotan egoten dira.

Beasainen, Oria ibaian, haurrak arrantzan ikustea, ezohiko irudia da. Zein gogoeta egiten duzu?

Duela 20 bat urte ezinezkoa zirudien helburua lortzen ari da, arazo askorekin noski, baina bizitza ugari dago, eta egoera hobetzeko lan egiten ari gara. Ez bakarrik ur-kalitatean, baita ibaia bere osotasunean berreskuratzeko ere. Izan ere, eta ur-kalitatea asko hobetu arren, Orian eta beste ibaietan habitatak oso aldatuta daude: ubideak artifizialak dira, bertako haltzadiak falta dira tarte askotan eta arrainen migraziorako oztopo asko dago. Problematika horrek baldintzatzen du ibaien berreskurapen osoa eta administrazio-etatik lanean jarraitu beharra daukagu bide onetik.

Duela 20 bat urte ezinezkoa zirudien helburua lortzen ari da, arazo askorekin noski, baina bizitza ugari dago.




GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)





Juan Manuel Galarraga zaldibiarra:

“Denbora pasatzeko aukera polita da pintura”

Ur taldeak, Ipar Euskal Herriko margolari amateurren taldeak, erakusketa irekiko du martxoaren 21tik apirilaren 8ra Ordiziako Barrena Kultur Etxean. Tartean da, urte askoan Iparraldean bizi den Juan Manuel Galarraga zaldibiarra. Lau margolan ekarriko ditu Ordiziara. Txiki-txikitatik izan duen zaletasunari serioago heldu dio erre-tiroa hartu duenean eta han eta hemen bere lanak erakusteko pausoa ematera ausartu da.

Ordizian erakusketa



Kepa Arizmendik eta Ricardo Pascualek sortu zuten Ur taldea. “Kepa Arizmendi, hilberria da, bihotzekoak emanda. Eskola handia zuen, Parisen ibilia zen. Abstraktu ederrak egin ditu. Baina Arizmendik ikusten zuen, erakusketak eta gale-riak eliteko jendearentzat izaten direla, baina gu bezalako jendearentzat ez zela erakusteko lekurik. Pentsatu zuten, taldea sortzea, Herriko Etxeetan-eta erakusketak eskatzeko”, dio Juan Manuel Galarragak. Taldea sortu eta geroztik eta jende mordoxka bat bildu da taldera. Ordiziako Barrenan,

Arizmendi eta Pascualen lanez gain, Juan Manuel Galarraga, Gonzalo Etxeberria, Ainitze Bruton, Kepa Oaia Perurena eta Eva Irazokiren izango dira ikusgai. Launa koadroa jarriko ditu artista bakoitzak. Galarragak eramango duen koadroetariko bat, argazkian ikusten dena da. Txindokiren bat ere ekarriko du. Martxoaren 18an izango da erakusketaren inaugurazioa eta apirilaren 8ra arte egongo da ikusgai. “Ea denborarekin Zaldibian ere egiten dudana zerbait”, gaineratu du zaldibiarrak.

Txiki-txikitatik pintura izan du zaletasuna Juan Manuel Galarragak. Erretiroa hartu duenetik, denbora gehiago eskaintzen dio pinturari. Horren ondorioz eta lagunek animatuta, margolanak, etxetik erakuslekuetara eramaten saiatzen da orain. Urrats hori egitea ez omen da erraza, baina egin eta gustura dago. “Ez nuen inoiz pentsatuko erakusketa bat egitea. Baina orain gehixeago aritu naiz eta lagunek animatu naute”, dio Galarragak.

Hori bai, bere lanak jendaurrea eramaten hasita, “gauza asko aldatzen dira erakusketa batean. Lana egiteko forma aldatzen da, gehixeago saiatzen zara. Alderdi hau,

estilo hau gehixeago gustatzen da... beste arlo batzuk hartzen dira kontuan. Lehen beti, iruditzen zitzaidana, gustatzen zitzaidana egiten nuen”, aitortu du. Erakusketaren ondoren, kritikak izaten dira, onak nahiz txarrak. “Nahi gabe ere, kaso egiten da eta horrek beti aldatzen du pentsatzeko edo gauzak egi-

tekoa forma. Batzutan lotsa ere ematen du kritikak entzutea, bai onagatik eta bai txarragatik”, gaineratu du.

Erretiroa

Erretiroa hartu duenetik, denbora gehiago dauka gustatzen zaiona egiteko. “Erretiroa hartu eta denbora pasatzeko aukera polita da. Ez da harri-

tzeko presondegieta zenbat jende hasten den pintatzen! Gustatuz gero, denbora pasatzeko hori bezalakorik ez da! Orduak eta orduak pasatzen ditut. Beste ezer egitekorik ez dudanean, pintatzea gustatzen zait”, azpimarratu du.

Esaera zaharrak dion bezala, ikasteko inoiz ez da berandu. Egunero, berekasa ari da pinturaren sekretuak ikasten. “Txiki-txikitatik gustatzen zait. Eskolan nintzenetik hasi nintzen marrazkiak egiten. Liburuetan pintoreak eta koadroak ikusten nituen. Velazquez eta horrelakoak eskolan ikasten genituen. Gero, prailetan, Sakramentinetan, Tolosan egon nintzen eta hor bazen irakasle

“35 urte egon nintzen Zaldibiara joan gabe eta lehenengo aldiz joan nintzenean, berriz ere mendiak ikusi nituenean, liluratuta gelditu nintzen”.

bat, eta hark erakutsi zidan marrazkiak egiten pixka bat. Bera ere pintatzen aritzen zen eta erakusketak ikustera eramaten ninduen. Gero Iparraldera etorri nintzen eta lehenengo urteetan ez nuen ezertxo ere egin. Gaur egun herri askotan badago ikasteko aukera baina nire garaian, Zaldibiatik Donostiara joan behar zen zerbait ikasteko. Etxean ere pinturako eskolak ordaintzeko ez zen dirurik”.

Urte asko daramatza margotzen eta bere lanetan garapena nabarmena izan dela dio. “Diferentzia badago bai. Neronek sentitzen dut, arituta, gauza asko ikasten direla. Lehen egiten zenituen gauza batzuk orain ez dituzu egiten. Koloreak, itzalak, argiak... lehen baino gehiago lantzen ditut. Zortea izan dut erakusketa asko ikusteko. Parisen asko ibili gara halabeharrez eta museoak ikusteko aprobe txatu dugu. Oinarri bat beharrezkoa da margotzeko”.

Hiperrealismoa

Denetik egiten du Juan Manuel Galarragak: erretratuak, paisajeak, bodegoiak, mitologia... “Abstraktuak ez dit ezer ere esaten. Gustatzen zait begiratzea norbaitek egiten badu, baina nirea gehiago da hiperrealismoa. Argazkiak ez, baina ia. Marrazkia dominatzea da zailena. Marrazkia ona baduzu, pintatzea errazagoa da. Garrantzitsua da marrazki ona izatea eta niri hori falta zait. Hori falta zaidala somatzen dut. Pertsona bat hartu eta marrazki ona egitea,



oso zaila da niretzat. Egin izan ditut, baina zaila da ondo egitea. Ikasi egin behar da. Paisajeak eta bodegoiak asko gustatzen zaizkit”.

Txindoki

“Txindoki zenbat aldiz margotu duzu?”, galdetu diogu. “Uff! Auskalo”, erantzun digu. “Gehienez, Zaldibia aldetik margotu izan dut. 35 urte egon nintzen Zaldibiara joan gabe eta lehenengo aldiz joan

nintzenean, berriz ere mendiak ikusi nituenean, liluratu ta gelditu nintzen. Lehen ez ginen konturatzen nolako edertasuna geneukan! Horrelako leku gutxi dago. Oso ederra da. Euriarekin, hego haizearekin, elurraekin... edozein garaietan zoragarria da Txindoki”.

Etxeko ganbaran du estudioa. Normalean egunez margotzen du, eguneko argiarekin. “Argi artifizialarekin ez”.

Argazkitik egiten ditu koadroak. “Ez naiz ausartzen bertara joan eta margotzen. Impresionistek hori egiten zuten, momentuan margotzen zuten. Baina horretarako jakin egin behar da eta argi-itzal-kolore momentua harrapatzeko, oso agudo egin behar duzu. Niri denbora hartzea gustatzen zait. Gehienak argazkiekin ibiltzen dira. Beharbada 15-16 argazki egiten dizkiot leku bati eta azkenean, montaje bat bezala egiten dut, halako argiarekin, halako itzalarekin... Onena izango litzateke bertara joan eta bertan egitea baina...”

Enkarguz koadroak egin eta saltzen ditu. Egindako erakusketen ondorioz ere, lan bat baino gehiago saltzeko aukera izan du. “Aurretik egindako erakusketa baten ondoren, lau koadro saldu nituen. Erakusketek horretarako ere balio dute”. Hori bai, askotan, pena handiz saltzen ditu. “Batzuekin behintzat, pena handia! Batzuk ez ditut saltzeko, ez, ez!!!”.

Pintura eta poesia

Pintura eta poesia ere uztartu izan ditu Galarragak. “Lankide izan nuen Mikel Iburguren koadro bakoitzari poesi bat jarriko ziola proposatu zidan. Jendeari asko gustatu zitzaion. Senperen egin nuen erakusketa eta saldu nituen koadroak, poesia eta guzti saldu nituen”, aitortu du. Ordizian, Zugarramurdiri buruzko koadroaren ondoan izango da Iburguren poesia.

“Marrazkia dominatzea da zailena. Marrazkia ona baduzu, pintatzea errazagoa da”

Ikaskide
 irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA
 UNIBERTSITATE MAILA (MU)
 IKASKETA TEKNIKAK
 INGELERA
 INFORMATIKA - MEKANOGRAFIA
 IKASKETA ARAZOAK

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde 7
 Beasain
 943 160 120
 685 722 403 - 675 006 462
 ikaskide@ikaskide.net

Egin harpidedun

Goi GOIERRITARRA ☐ HITZA ☐ GOIERRITARRA+HITZA ☐ **hitza**

urtean 27 euro urtean 67 euro urtean 72 euro

•Izen-abizenak:	•N A:
•Lanbidea:	•Jaioteguna:
•Helbidea:	•Herria:
•P.K:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	

902-82 02 01 harpidetza@hitza.info Urbialde plaza, 7 beheka • Beasain



Goierrit Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 33. zenbakia 2011ko martxoa



Goierriko ibilaldi neurtua



Seguran, iazko Eskolarteko ibilaldi neurtuko ibiltariak, proba bukatuta diplomarekin. Arg.: Pello Agirrezabal

Martxoaren 13an, Beasainen, Goierriko ibilaldi neurtua

Mendian festa eta lagun giroan

Haurren artean mendizaletasuna bultzatzea da Gipuzkoako Mendizale Federazioaren helburua. Horretarako, herrietako mendi elkarteak eta ikastetxeak, elkarlanean aritzen dira. Mendi elkartekoak, gurasoek eta ikasleek, mendi irteerak antolatzen dituzte ikasturtean zehar. Martxo aldera, ibilaldi neurtuak antolatzen dira eskualde bakoitzean. Aurten, Beasainen jokatu da Goierri dagokiona.

Goierrihartxori ere asko gus-

tatzen zaio, botak jantzi eta bizkarrean motxila hartuta, kirola eginez, lagun giroan, inguruko txokoak eta bazterrak ikustea. Martxoaren 13rako beraz, badu plana, Goierriko beste 300 haur eta 200 gurasok bezala. Goizeko 8etan hasiko da ibilaldi neurtua. Usurberen inguruan antolatu dute ibilaldia.

Bi ibilbide antolatu dituzte Aizkorri Mendizale Elkartekoak: 8,8 kilometroko (2 ordu eta erdi inguruko ibilbidea) ibilbide labu-

rra eta ibilbide luzea, 11 kilometrokoa (3 ordu eta erdian egiteko modukoa).

Ibilbide gehiena berdina izango dute. Loinazko San Martin plazatik aterako dira parte hartzaileak eta hortik Loinazko ermitarantz abiatuko dira. Arantzamendi eta Aranburu baserrietatik gora, Mendizabalen lehenengo kontrola izango da. Aldaparik gogorrenak hortxe egongo dira. Ondoren, Agortaraino iritsiko dira mendiza-



leak. Bertan, atsedena hartu eta hamaiketako egiteko aukera izango dute. Bertan egongo da bigarren kontrola.

Agortan, mendizaleek, bi aukera izango dituzte. Ibilbide laburra aukeratu duenak, behe-rantz abiatzeko aukera izango du ete luzea aukeratu duenak, Usurberaino igo beharko du, behe-rantz hasi aurretik. Azkeneko kontrola, Olazar baserri inguruan egongo da. Ibilbidea, Loinazko San Martin plazan bukatuko da.

Bukaeran parte hartzaile guz-tiei diploma bana emango zeie.

Hori bai, kontuan hartu ibiladi neurtuaren helburua ez dela lehenengo iristea. Mendian ibiliz, lagun artean, goiz pasa ederra egitea baizik.



Bi ibilbide antolatu dituzte Aizkorri Mendizale Elkartekoak: 8,8 kilometroko (2 ordu eta erdi inguru) ibilbide laburra eta ibilbide luzea, 11 kilometrokoa (3 ordu eta erdian egiteko modukoa).



Bakoitzari bere burua



1



2



3



4



5



ZER IRAKURRI?

*Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko
Irakurketa Mintegia*



Ipuin kontalariaren arbela

Autorea: Pello Añorga

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Argitaletxea: Aizkorri

Orrialde kopurua: 36

Elurrez inguratutako eskola bakarti bateko hurrek ipuin-kontalariari ongi etorria egiten diote. Honek, gelan arbel berri bat dutela esaten die, denen harri durarako. Leihora inguratu eta kristalean marra bat egin du, lurrunduta dagoela aprobe txatuz. Eta marrazketa amarru simple baina eraginkor baten bidez, umeak txundituta utziko ditu. Añorga eta Mitxelena arloko ahots sendo eta nabarmenetakoak zergatik diren erakutsiz.

Malanjel pirata

Autorea: Txiliku



Ilustratzailea: Eider Eibar

Argitaletxea: Elkar

Orrialde kopurua: 45

Zaila da gauza mingarriei buruz hurrei hitz egitea: heriotza, gaixotasuna,... Tabu bihurtu ditugun kontu hauetaz hitz egin behar dela uste baduzu, liburu hau oso egokia duzu. Narrazio ilustratu honetan Txilikuk alzheimer gaixotasuna azaltzen digu, ume baten ikuspegitik beti ere. Hartarako bilatzen duen abiapuntuko aitzakia polita da umeekin praktikatzeke, bestela ere: Hitz bilduma bat egitea koaderno batean

7 aldeak



Sudokua

9x9-ko laukian hutsik dauden laukitxoak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz, eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

	5		2	7				3
			6	3		8		5
							7	2
4	3		8	5	7	2	9	6
5	2				4	3	8	7
8	7			2			5	
2	4				5	6		
9	8		1		2	7	3	4
6		7	4		3			8

goierri^H artxoren
lagunak:

 **IRIZAR**



Iparra-Hegoa:

martxoaren 19tik 27ra Seguran

‘Komunikabideak’ izango da aurtengo gaia

Martxoak 19, larunbata:

09:00etan: Margolari nobelen lehiaketa.

17:00etan: Margo lanen sari banaketa.

Martxoak 24, osteguna:

19:30ean: Bertso poteoa eta afaria: Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus, Kuxkuxtu txaranga lagun. Afari txartelak, Elorripen eta Xaian daude salgai.

Martxoak 25, ostirala:

Segurako Laiotz Herri eskola-ko haurren eta Angeluko eta Hiriburuko ikastolatakoen arteko egun pasa.

11:00etan: Harrera. Ondoren herri-itzulia Ardixarra bisitatzuz eta irrati saioa.

12:30ean: Herriko haurren eta gonbidatuen arteko bazkaria.

13:30ean: Xiba jokoak.

14:30ean: Haur ikuskizuna, kantua eta abar. Ikastetxe bakoitzak okasiorako prestatua aurkeztuko ditu. Haurren dantzaldia Kiki Bordatxoren taldearen eskutik.

Iluntzean: Kale animazioa.

23:30ean: Kontzertua: Xutik (lapurtarra), La Troba Kun fú (kataluniarrak) eta Emon (bergararrak).

Martxoak 26, larunbata:

09:30ean: Mendi irteera, Lizarrustiko Parketxetik: Lizarrusti-Igaratza-Lizarrusti. Euskal Herriko herri ezberdinetako mendizaleak Goierrikoekin batera inguruak eza-gutuz.

11:00etan: Kirol norgehiagoka herrikoia: Iparraldeko eta Hegoaldeko taldeen artekoa.

19:00etan: Taloak eta Arabar Errioxako eta Nafarroako ardoen dastaketa, Kuxkuxtu Txarangak alaitua.

23:00etan: Iñazki Lapurdiko taldearekin dantzaldia.



Martxoak 27, igandea:

Goizean:

✓ Kriseilu txistulari taldearen goiz eresia.

✓ Herriko eta herrialde bakoitzeko produktuen azoka. Goierriko eta Ipar Euskal Herriko laborarien etxe ekoizpenak.

✓ Sukalki edo gisadu txapelketa.

✓ Animazioak: Mutiko Alaiak txaranga, Baigorriko gaiteroak, Hazparneko joaldunak...

✓ Dantzariak: Akelarre taldea. Herriko gazteen korua, hainbat herrian zehar.

13:00etan: Txakolin dastaketa.

14:00etan: Euskal Herriko herrialdeen arteko lotura sinbolizatzen duen Gereziendoko ekitaldia. Gonbidatu bereziak: Luzien Etxezarreta eta Jojo Bidart Gure Irratia eta Irulegiko Irratiaren sortzaileak.

14:30ean: Herri bazkaria, Kuxkuxtu txarangak alaitua.

Ondoren: Sukaldaritza lehiaketako sari banaketa. Eta azkenik, Mutxiko dantzak aurtengo ekitaldiei bukaera emateko.

Komunikabideak hizpide

Astean zehar hitzaldi sorta izango Segurako Kultur Etxean. Komunikabideak gai hartuta, hainbat euskal komunikabideetako zuzendariak hartuko du parte.

Martxoak 21, astelehena:

19:30ean: XIX. mendetik honako euskal komunikabideen historia. Prentsa elebiduna edota prentsa abertzalea eta euskararen presentzia. Hizlariak: Eneko Bidegain (HUHEZIKo irakaslea eta idazlea) eta Aitor Zuberogotia (HUHEZIKo irakaslea).

Martxoak 22, asteartea:

19:30ean: Mahai ingurua: zein etorkizun du paperezko prentsak. Sare sozialetan euskararen lekua. Hizlariak: Mikel Etxeberria (Radio Kultura), Luis Fernandez (kazetaria eta blogaria), Pantxika Maitia (Kanaldude) eta Martxelo Otamendi (Berriako zuzendaria).

Martxoak 23, asteazkena:

19:30ean: Zer da prentsaren askapena: prentsa independenterik eta librerik ba al da? Gertakari bat erabiltzea helburu politikoen arabera. Hizlariak: Gaizka Aranguren, Luzien Etxezarreta (Gure Irratiko kazetari ohia), Xabier Letona (Argiako zuzendaria) eta Iñaki Soto (Garako zuzendaria).

Segura

Udaberriko Lore eta Landare azoka, martxoaren 20an

Udaberriarekin batera, badira 11 urte, Seguran, Udaberriko Lore eta Landare azoka antolatzen dutela. Martxoaren 20an, egun osoko azoka izango Segurako plazaren inguruan. Dena den, aurreko egunean hasiko dira segurarrak giroa berotzen. Jarraian duzue egitaraua:

Martxoak 19, larunbata:

16:00etan: Zuhaitz landaketa eta ibai inguruko ekologiar buruzko ibilaldi gidatua, plazatik abiatuta.

Martxoak 20, igandea:

10:00etan: Azokaren irekiera:

- Kriseilu txistulariak eta herriko trikitilariak.
- Lore eta landare erakusketa eta salmenta.
- Eskualdeko artisautza eta produktuak.

10:30etik 14:00etara: Ikuskizuna, plaza inguruan: 'Txerto ezberdinak fruitarboletan', Josu Osaren eskutik.

16:30etik 19:00etara: Azokaren jarraipena.

Ordizia

Gaztetxearen urteurrena: Bertsotxotx eta mus txapelketa

Martxoak 12, larunbata:

18:00etan: Ordiziako plazan, Bertsotxotx!. Inguruko sagardotegietako sagardoa dastatzeko aukera izango da, Iban Urdangarin, Iñaki Apalategi, Aitor Sarriegi eta Ainhoa Mujika bertsolarien bertsoek alaituta.

Martxoak 19, larunbata:

Arratsaldean: Gipuzkoako Mus txapelketako kanporaketa Ordiziako plazan, Korrika Kulturalaren barruan.

22:00etan: Kontzertua Gaztetxean: 'La mexicana Clandestina' (Euskal Herrikoak) eta Erribera (Madrilgoak).

Beasain

Arriarango Ondare historikoari buruzko hitzaldia

Martxoak 11, ostirala:

18:00etan: Arriarango Intxaurpe elkarteak, hitzaldi kulturala izango da, Arriarango ondare historikoari buruz. Martin Mendizabal 'Martxin Txiki' apaizak emango du hitzaldia. Ondoren, luntxa izango da.

Beasain

Gipuzkoako Haur kantari jaialdia, Beasainen

Euskal Kantuzaleen elkarteak, Haur Kantari jaialdiak antolatu ditu: apirilaren 9an, Beasainen, Usurbe Antzokian izango da eta apirilaren 10ean, Usurbilen. "Haur Kantari jaialdiarekin, ziur gaude, Gipuzkoako haurrek euskara erabiliz gozatzeko dutela, euskal kantuaren aldaera guztietan murgilduta, beste ikastetxeetako haurrekin konpartituko duten jai batean".

Haur Kantari jaialdietan 6-15 urte bitarteko ikasleek hartzen dute parte, bi kategoriatan banatuta: txikiak, 6-11 urte bitartekoak eta gaztetxoak, 12-15 urtekoak.

Hiru sailetan har daiteke parte: banaka, binaka edota taldeka (3-15 kantari bitartean). Aurkezten diren kantuak bi eratakoak izan daitezke: bertsioak (kantu zaharrak, tradizionalkak edo berriak) edota sortutako kantu berriak.

Laguntza instrumentalari dagokionean, librea da, bai instrumentu ezberdinekin lagunduta kantatzea, edota inolako laguntza instrumentalik gabe.

Parte hartzaile guztiek opari bana jasoko dute. Horrekin batera, aurkeztutako kantaren audioa eta beraien argazkiak DVD batean jasotzeko aukera izango dute.

Gipuzkoan egingo dituzten bezala, Araba, Bizkaia, Nafarroan eta Iparraldean egingo dituzte jaialdiak eta bertan, ekainaren 11n Hazparden jokatu den Euskal Herriko Haur Kantari Txapelketa Nagusirako ordezkariak aukeratu dira.

Gipuzkoako Haur Kantari jaialdietan izena emateko epea irekita dago, martxoaren 31ra arte. Izena emateko bi bide daude: 943593302 eta 669546357 telefono zenbakiak eta posta@kantuzale.net posta elektronikoa.

Zegama

Joxantonio Ormazabali omenaldia

Martxoaren 13an, igandea, 13:00etan, zegamarra zen Joxantonio Ormazabali 'Aierdi'ri omenaldi xumea egingo diote Zegamako Kultur Etxe aurreko magnoliopean. Bertan harri bat jarriko da Joxantonioren omenezko plaka bat ezarri.

12:55ean: Txalaparta emankizuna

13:00etan: Agurra.

13:05ean: Joxantonio Ormazabalen oroimenez jarriko den harriari zapi kendu bitartean, musika, Tobera Musika Eskolako eskutik.

13:10ean: 'Astoa ikusi nuen' abestia kantatzea.

13:15ean: Joxantonio Ormazabalek idatzitako pasarte eta olerki batzuen irakurketa.

13:20ean: Orkatz eta Orkatz Txiki abesbatzek 'Aberriaren mugak' abestia abestuko dute.

13:25ean: Bertsolariak: Iker Zubeldia, Mikel Mendizabal eta Eusebio Igartzabal.

Ondoren: Salda banatuko da bertaratutako artean.

Lazkao

Ekintzak

Martxoak 11, ostirala:

18:30etan: 'Ipuin baten gerizpean' haur antzerkia Txalo taldearen eskutik, Azeria Kultur Gunean.

Martxoak 15, asteartea:

20:00etan: Julen Agirre eta Ainhoa Mujikarekin bertso-afaria Maizpiden.

Martxoak 18, ostirala:

19:00etan: Oin Arin dantza taldearen ikuskizuna Azeria Kultur Gunean.

Beasain

XIV. Igartza literatur-sorkuntzako beka idazle berrientzat

Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak aurtengo ere, Igartza literatur-sorkuntzako bekaren oinarriak kalderatu dituzte. Idazle berrientzat beka izaten da, eta 6.000 euroko dirulaguntza izaten da jokoan.

35 urtetik beherako idazleek dute beraien literatur proiektuak aurkezteko aukera. Lan argitaraturik izatekotan, helduentzako narratibaren liburu bat baino gehiago ez izatea da baldintza. Narratibako lanak (eleberri edo ipuin-bildumak) egiteko aurkez daitezke, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak. Partehartzaile bakoitzak, lau aldakitan eta bere benetako izena agerian jarri gabe, ondorengo agiriak aurkeztu behar ditu bere proiektuarekin batera:

Batetik, landu nahi duen kontakizunaren azalpena, 2-4 orri bitarteko luzerakoa, egoki irizitako ezaugarriak zehaztuz, halanola, argumentua, egitura, luzera, estiloa... Bestetik, idazlanaren lagina edo erakusgarria, 15-20 orrialde bitartekoa, ez nahitaez kontakizunaren hasierakoa, baina bai zati bakarra osatzen duena.

Eta azkenik, gutunazal itxia, kanpoko aldean idazlanaren izenburua izango duena eta barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa, telefonoa eta nortasun-agiriaren fotokopia.

Proiektuak, ekainaren 30 baino bidali behar dira Beasaingo Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

Karmele Jaiok, Igor Esntakonak eta Xabier Etxeberriak osatuko dute epaimahaia. Bekaren diru kopuruaren erdia, irabazle izendatu bezain laster jasoko du irabazleak eta beste erdia, idazlan amaitua entregatu eta epaimahaikoek onespenera emandakoan. Proiektu irabazleak, izendapena jaso eta urtebeteko epea izango du gehienez, idazlan amaitua Beasaingo Udalari helerazteko.

Ordizia

Martxoko ekintzak

Martxoak 14a bitartean:

Udal liburutegian 'Letren lehiotik aretora' ekimena ikastetxeekin.

Martxoak 15, asteartea:

17:00etan: Barrena Kultur Etxea, Ikusi Makusi programaren barruan, Bihar Txontxongilo taldearen 'Adarbakar urdina'. Antolatzailea: Hitzaro Euskara Elkartea.

Martxoak 15, asteartea:

19:30etatik 21:30era: Barrena Kultur Etxean, Iñaki Sanchezen eskutik, Photoshop tailerra: HDR. Antolatzailea: Ortazar Argazki Elkartea.

Martxoak 20, ostirala:

13:00etan: Plaza Nagusian, Beti Argi Bandaren kontzertua.

Martxoaren 21etik apirilaren 8ra:

Ur taldearen pintura erakusketa: Ainize Butron, Juan Manuel Galarraga, Eva Irazoki, Oaia Perurena, Gonzalo Etxeberria, Ricardo Paskual, Kepa Arizmendi. Barrena Kultur Etxean.

Martxoak 20, igandea:

10:30etan: Ordiziako Txistularien goiz-eresia.

Martxoak 22, asteartea:

19:30etik 21:30era: Barrena Kultur Etxean, Aitzol Arruabarrenaren eskutik, argazki tailerra: Macro-argazkia II. Antolatzailea: Ortazar Argazki Elkartea.

Ahoz aho III. Jaialdia

Ahokotasuna eta ipuina oinarri hartuta, hainbat saio egingo da martxoaren 19tik 27ra. Martxoaren 19an, ipuin poteoa egingo dute herriko tabernetan, arratsaldeko 7,30etan hasita. Doro, Badut, Irantzu Manso eta Karrere euskal artistak arituko dira ipuinak kontatzen.

Martxoaren 24an, Urdaneta ikastetxean eta Jakintza Ikastolan egingo dituzte ipuin kontaketa, Badut-ek eta Irantzu Mansok. Eta martxoaren 25ean, Herri antzokian, artista guztiak bilduko dira.

Beasain Ordizia**Antzerki garaia****Martxoak 11, ostirala:**

22:15etan: Ordiziako Herri Antzokian, Txalo produkzioak-en 'Demode Quartet'.

Martxoak 18, ostirala:

20:00etan eta 22:30etan: Txalo produkzioak-en 100 m², Usurbe Antzokian.

Ataun**Sukaldaritza eta lore lehor ikastaroak**

Ataungo Udalak, Kutxa Fundazioarekin elkarlanean, bi ikastaro antolatu ditu. Batetik, 10 orduko sukaldaritza ikastaroa izango da, asteartetan, 18:00etatik 20:30era. Irakaslea, Iker Markinez izango da. 46 euro kostako da ikastaroa.

Bestetik, lore lehorrekin jolasean ikastaroa, hau ere 10 ordukoa, ostegunetan izango da, 18:30etik 20:00etara. Amaia Arteta da izango da irakaslea.

Ikastaroren batean parte hartu nahi duenak, martxoaren 14a baino lehen eman behar da izena, udaletxean bertan edo www.ataun.net webgunean.

Ormaiztegi**Familientzako tailerrak**

Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak, larunbatero, familientzako jarduerak edo tailerrak antolatzen jarraitzen du. Datozen bi ikastaroak, honakoak izango dira: martxoaren 12an, dilijentzian bidaia eta martxoaren 19an, euskarazko zinema. Jarduerak 17:30etik 19:00etara izaten dira, dohai-nik.

Beasain**Martxoko ekintzak****Martxoak 13, igandea:**

08:00etan: Mendi irteera: Ibilaldi neurtua (Beasain). Antolatzailea: Aitzgorri Mendizale Elkarte.

Martxoak 16, asteazkena:

09:45etan: Antzerkia ingelesez eskolaumeentzat, Usurbe Antzokian.

Martxoak 20, igandea:

08:00etan: Mendi irteera: Etxarri-Lizarrusti (Trikuharriak), Antolatzailea: Aitzgorri Mendizale Elkarte.

Arranoko mus txapelketa

Martxoaren 12an, arratsaldeko 4,30etan, Beasaingo plaza azpian, jokatu da XXI. Arrano mus txapelketa. Egunean bertan, arratsaldeko 3,30etan hasita, eman beharko da izena, Arrano tabernan. Bikoteko 40 euro ordaindu beharko dira. 4 erregetara jokatu da. Zortzi sari egongo dira: bikote irabazlearentzat, 1.500 euro eta txapelak; bigarren bikotearentzat, 800 euro; hirugarrenarentzat 400 euro; laugarrenarentzat 200 euro; bosgarrenarentzat arume bat; seigarrenarentzat ardo kaxa bat; zazpigarrenarentzat bi tarta eta zortzigarren bikotearentzat bi kaba botila.

Goierrri**AEK-ren martxoko ekitaldiak****Martxoak 18, ostirala:**

16:00etan: Ordiziako Jubilatuenen, 'Txokolate trufa tailerra'.

over Urraki
Bidaietan adituak

**Erreserbatu zure udako oporrak
aurrerapenez eta lortu
% 50 arteko deskontua**

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda, Centro 100. **Urreku:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



Mutiloako eskolako neskatoak 1929. urte inguruan

Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Pantxika Alustiza (Errotatxo), Joxepa Aldanondo (Lierniazpikoa), Maria Aldasoro (Gaztañadierrota), Ines Iparragirre (Ugalde), Juanita Aldasoro (Intxaurtxulo), Felisa Goia (Elizaurre), Manuela Murgiondo (Eguzkitza) eta Juana Mari Arrondo (Ostatu).

Bigarren ilaran: Eusebia Murgiondo (Murgiondo), Monika Murgiondo (Agirieta), Konzepzion Murgiondo (Eguzkitza), Luzia Ramona Otxoa (Iturrioz), Julio Merino Vilches (maisua), Mariatxo Telleria (Ugarte), Florentina Alustiza (Olano), Eugenia Alustiza (Lenkaran), Eusebia Legorburu (Gaztanadibekoa) eta Juanita Azurmendi (Apaolazaerdikoa).

Hirugarren ilaran: Blasa Alustiza (Olano), Antonia Alustiza (Errotatxo), Juanita Iparragirre Gereñu (Ugalde), Juanita Iparragirre Aldasoro (Ugalde), Julita Aldasoro (Intxaurtxulo), Maria Lekuona (Lenkaran), Benigna Aldasoro (Intxaurtxulo), Gregoria Murgiondo (Murgiondo) eta Maria Mendizabal (Urbizuaranzahar).

Beheko ilaran: Mariatxo Alustiza (Iparragirre), Goiburu (Berbategi), Milagros Aldasoro (Intxaurtxulo), Teresa Mendizabal (Urbizuaranzahar), Mikaela Alustiza (Estanko), maisuaren semea, maisuaren semea, Antonia Arrondo (Ostatu) eta Maria Telleria (Buztindegia).

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Inplantologia
Periodontzia

Artikulazio eta ahoko minak
Radiologia digital zerbitzua
Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



A SEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

ARETO
NAGUSIAN
*Etorri aurretik
izena eman!*

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Goierriko campusa

INGENIARITZA

ORDIZIA, MARTXOAK 26

larunbata, 11:00



berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea

ZURE LORATEGIA ETA BARATZA ZAINTEKO BEHAR DUZUN GUZTIA, ESPAZIO BAKAR BATEAN




| Erregadioa



| Lorontziak



| Haziak



| Ongarriak



| Lurak eta harriak



| Lan tresnak

LORATEGI LANAK ERE EGITEN DITUGU. INFORMA ZAITEZ!



Altune poligonoa, 4-G. OLABERRIA
943 88 30 53